



**2012KO MAIATZAREN 11KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko maiatzaren hamaikan, arratsaldeko ordubi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Haizea Mendia Insausti eta Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2012ko apirilaren 13an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2012ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 16 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA HAMABOST MILA ETA BERROGEITA ZAZPI EURO ETA LAUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (115.047,96 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 127 zbk.dun esped.: egoitzan sartu dela eta, zerbitzuan baja ematea 2012ko martxoaren 8an.

- 12-11-01 zbk.dun esped.: egunean ordu beteko zerbitzua ematea, astelehenetik ostiralera, 2012ko apirilaren 23an hasita. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15a izango da. Zerbitzu hau denboraldi baterako izango da, interesatuaren osasun egoerak hobera egin arte.

Elbarrituen garraioa.-

- 12-17-01 zbk.dun esped.: 400,51 € ematea urte osorako, hau da, hilean 36,41 € abuztuan izan ezik.



- 12-17-02 zbk.dun esped.: 400,51 € ematea urte osorako, hau da, hilean 36,41 € abuztu-an izan ezik.

- 12-07-03 zbk.dun esped.: 400,51 € ematea urte osorako, hau da, hilean 36,41 € abuztu-an izan ezik.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

